


Hélène Delforge

Nita



Quentin Gréban



algar

Esaten didatenean:
«Berarekin, hoguei urterako kondena duzu»,
beti izaten dut gogoa erantzuteko...

«Bakarrik?»



«Jenialtasuna % 5ean inspirazioa da, eta % 95ean transpirazioa»,
esaten zuen Beethoven-ek.

Gaur, inspirazioa zerotik hurbil dago.

Eta transpirazioak ez du ezertarako balio.

Hit the Road, Jack honek erritmo gutxiago du
mamut batek bizkar-zorro batean baino.

Ez naiz sekula prest egongo kontzerturako.

La, sol, fa, mi. La, klonk, fa...

Sol hori! Ezin dut sol horrekin trabatzen jarraitu!

Kito. Kokoteraino nago.

Ziztu bizian heldu zara.

–Segi, Aita!

Jo berriz «Dontioukomebak Gnomognomognomogno!»!

–Orain ez. Aita haserre dago.

–Faborez, Aita!

Pianoa zabaldu duzu berriz, partiturari musu eman, eseri zara...

Eta kantuan hasi.

Animatu egin naiz, zuregatik baino ez, zure ahots mehegatik.

Jotzeak ematen duen gozarena sentitzen dut berriz.

Ez dakit sol hori ondo jo dudan edo ez,

hiru nota aurrerago gaude jada, bai zu eta bai ni.

Musika genuen helburu bakarra.

«Gnomognomognomogno!»

Nire musika % 95ean da inspirazioa.

% 95ean zu.

